



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/14

Ehundaka pertsona igon dira Sollubera, ohikoa dan Batzarretarako deian parte hartzeko

Bost urte geroago, adarrotsa barrero entzun da Bizkaiko Golkoko begiralekuan. Batzarretarako dei tradizionalen parte hartzeko gogoak ehundaka pertsona bultzatu ditu gaur Sollubeko tontorrera, Deiadar Mendien Egunaren hamalagarren edizinoan parte hartzeko. Batzar Nagusiek jardunaldi hori tradizional bilakatu dabe daborduko mendien eta Bizkaiko tradizioen zaleentzat.

Batzar Nagusiek, Sollube 707 (Bermeo) eta Tallu Mendizale (Mungialde) taldeakaz batera antolatu daben mendiko martxea goizeko 09:30ean abiau da Bermeoko Taraska plazatik, eta mendiaren beste aldetik, 10:00etan Arrietatik. Mendizalez osatutako zutabe bietako lehenengo taldeak 11:30etik aurrera joan dira Sollubek dituan 684 metroetara ailegetan. Eguerdiko hamabietan, tontorreatan, Batzar Nagusietarako ohiko deia egin da, legendak esaten dauenez Erdi Aroan egiten zan moduan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2004. urtetik antolatzen dabe jardunaldi hori, garai modernoan erakundea barrero be indarrean jarri zanetik 25. urteurrena bete zanetik. Urte horretatik, adin guztietako bizkaitarrek adarrotsa entzun ahal izan dabe, bost deiadar mendietako (Gorbeia, Koltza, Sollube, Oiz edo Ganekogorta) batetik, Antonio Trueba moduko lurraldeko kronistek kontetan dabenez XIV. eta XV. gizaldietan Gernikako Arbolaren azpian batzeko egiten zan antxinako deia gogoratuz.

Tontorreatan, ohorezko aureskuaren ostean, Sollube 707 Taldeko ordezkariak, datorren urtean egingo dan Oizerako igoera antolatuko dauen taldeko ordezkariari emon deutso adar ofiziala. Batzar Nagusiak ordeztuz Ana Otadui presidentea joan da, eta beragaz batera Bizkaiko beste ordezkari batzuk, Jon Andoni Atutxa, Celia Gómez, Oscar Arana, José Angel Basauri, Gorka Beitia, Aitor Ibarra, Kontxi Claver, Jesús Lekerikabeaskoa eta Unai Lerma batzarkideak, besteak beste. Solluben, Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Unai Rementeria, egon da.

Adarrotsaren ostean, Otadui eskerrak emon deutsez bertara gerturatutakoei, eta gogorarazo dau Batzar Nagusiek, Europa osoko lehenengo erakunde demokratikoetako batek, 2004an emon eutsiela formea jai herrikoi horri, esaten danez Bizkaiko ordezkariak deitzeko antxinako modua zana gogoratzeko asmoz.

Jaiak Koltzako tontorraren inguruan jarraitu dau gero, euskal musikeagaz eta dantzagaz, Bermeoko Alkartasuna Alkarteagaz eta eskualdeko produktu tipikoen dastatzeagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
14/05/2017

Cientos de personas coronan el Sollube para participar en la tradicional llamada a Juntas

Cinco años después, el sonido de los cuernos ha vuelto a sonar en el balcón del Cantábrico. Las ganas de participar en la tradicional llamada a Juntas han animado hoy a cientos de personas a subir hasta la cima del Sollube para participar en la decimocuarta edición del Día de los Montes Bocineros, una jornada que las Juntas Generales de Bizkaia han convertido ya en una marcha clásica para los amantes a la montaña y las tradiciones vizcaínas.

La ruta montañera, organizada por las Juntas Generales en colaboración con los clubs de montaña Sollube 707 (Bermeo) y Tallu Mendizale (Mungialde), ha partido a las 9:30 horas desde la plaza Taraska de la localidad marinera y, por la otra cara del monte, a las 10 horas desde Arrieta. Los primeros grupos de las dos columnas de mendizales han ido alcanzado los 684 metros del Sollube a partir de las 11:30 horas. Ya en la cumbre, a las doce del mediodía se ha realizado la tradicional llamada a las Juntas Generales, como dice la leyenda se hacía en tiempos de la Edad Media.

Las Juntas Generales de Bizkaia organizan esta jornada desde el año 2004, coincidiendo con el 25 aniversario del restablecimiento de esta institución en la época moderna. Desde ese año, miles de vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido oír, desde alguna de las cinco cimas bocineras (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz o Ganekogorta), el sonido del cuerno, emulando la llamada primitiva que según cronistas del territorio como Antonio Trueba afirmaban que era una de las maneras utilizadas que tenían en los siglos XIV y XV para dar aviso de las reuniones bajo el Árbol de Gernika.

En la cumbre, tras un auresku de honor y unas danzas tradicionales, el representante del club Sollube 707 ha hecho entrega del cuerno oficial al representante del club organizador de la subida del próximo año en el Oiz. En representación de las Juntas Generales ha acudido su presidenta, Ana Otadui, quien ha estado acompañada de otros representantes de Bizkaia como los apoderados/as Jon Andoni Atutxa, Celia Gómez, Oscar Arana, José Angel Basauri, Gorka Beitia, Aitor Ibarra, Kontxi Claver, Jesús Lekerikabeaskoa o Unai Lerma. En Sollube ha estado también el diputado general de Bizkaia, Unai Rementería.

Tras el tañir del cuerno, Otadui ha dado las gracias a los asistentes en la subida y ha recordado que las Juntas Generales, una de las primeras instituciones democráticas europeas, dieron forma a esta fiesta popular en el año 2004 con la idea de recordar la que dicen fue una de las maneras ancestrales de convocar a los representantes de Bizkaia.

La fiesta ha seguido después en las inmediaciones de la cumbre en donde no ha faltado la música y las danzas vascas a cargo del grupo local Alkartasuna Elkartea de Bermeo, y una degustación de productos típicos de la comarca.